

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Udal Kultur Etxea (Basauri)****Zeramikagintza-Irakasle Artista lanpostu bati dagokion hautaketa-prozesuko oinarri espezifikoak zuzentzea.**

Basauriko Udal Kultur Etxeko Lehendakariak 541/2025 zenbakiko Ebazpena eman du uztailaren 16an, zeinaren erabaki-zatian honako hau xedatzen baita:

*Lehenengoa:* Zeramikagintza-Irakasle Artista lanpostu bat (7.4 postuaren kodea) oposizio-lehiaketaren bidez txanda irekiz betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoaren zuzenketa onartzea.

*Bigarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

**ZERAMIKAGINTZA-IRAKASLE ARTISTA LANPOSTU BATI DAGOKION  
HAUTAKETA-PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK ZUZENTZEA****Hamargarrena. — Hautapen prozesua**

— *Hau dioen lekuan:*

10.2. Lehiaketa-fasea. Lehiaketa-fasean gehienez 40 puntu lor daitezke, eta baremo honen arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du puntuazio hori:

a) Esperientzia. Gehienez 30 puntu

Administrazio publikoetan C taldeko C-1 azpitaldeko zeramika irakaslearen lanpostu/plazan egindako zerbitzuengatik, gehienez 30 puntu, 5,00 (bost) puntu zerbitzu-urte bakoitzeko, edo sei hilabeteko edo hortik gorako frakzio bakoitzeko. Sei hilabete baino gutxiagoko zatikiak ez dira baloratuko.

(...).

b) Titulazioak eta hizkuntzak. 10 puntu gehienez

(...).

— *Hau esan behar du:*

10.2. Lehiaketa-fasea. Lehiaketa-fasean gehienez 27 puntu lor daitezke, eta baremo honen arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du puntuazio hori:

a) Esperientzia. Gehienez 20 puntu

Administrazio publikoetan C taldeko C-1 azpitaldeko zeramika irakaslearen lanpostu/plazan egindako zerbitzuengatik, gehienez 20 puntu, 5,00 (bost) puntu zerbitzu-urte bakoitzeko, edo sei hilabeteko edo hortik gorako frakzio bakoitzeko. Sei hilabete baino gutxiagoko zatikiak ez dira baloratuko.

(...).

b) Titulazioak eta hizkuntzak. 7 puntu gehienez

**Hamaikagarrena. — Prozesuaren emaitza eta dokumentuen aurkezpena**

Oinarri honetan xedatutakoari honako hau gehitu zaio:

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe-ko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 21.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, trebakuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan, baldin eta kidego, eskala, maila eta kategoria horien ordezkariak %40tik beherakoa bada, salbu eta beste hautagaiak neurri



hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, hala nola enplegua lortzeko eta sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Horretarako, hautagaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean.

Basaurin, 2025eko uztailaren 16an. — Basauriko Udal Kultur Etxearen Lehendakaria, Berta Montes Beltran